Apirilaren 18a, Ostiral Santua.
Apirilaren 21a, Pazko Astelehena.
Maiatzaren 1a, Langileen eguna.
Uztailaren 25a, Santiago eguna.
Abuztuaren 15a, Andre Mariaren Jasokundearen eguna.
Azaroaren 1a, Domu Santu eguna.
Abenduaren 6a, Espainiako Konstituzioaren eguna.
Abenduaren 8a, Ama Birjina Sortzen Garbiaren eguna.
Abenduaren 25a, Eguberri eguna.

*2. artikulua.–* 1.– Lan ondorioetarako, bi mila eta hirugarren urtean, tokian tokiko jaietako bi egun ere jaiegun izango dira, hau da, ordaindu egingo dira eta ez dira errekuperatu beharko. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko lurralde ordezkariek zehaztuko dituzte egun horiek, udaletako plenoen proposamenez. Lurralde historikoko gainerako udalerriekin batera edo aparte hartu ahalko dira.

2.– Dekretu hau argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta hilabeteko epean egin behar dute proposamena udalek, eta beren lurralde ordezkaritzetara bidali.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari aginpidea ematen zaio, dekretu honetan xedatutakoa ezarri eta betetzeko behar diren xedapenak emateko.

*Bigarrena.–* Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2002ko ekainaren 25ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZCÁRRAGA RODERO.

18 de abril, Viernes Santo.
21 de abril, Lunes de Pascua de Resurrección.
1 de mayo, Fiesta del Trabajo.
25 de julio, Santiago Apóstol.
15 de agosto, Asunción de la Virgen.
1 de noviembre, Todos los Santos.
6 de diciembre, Día de la Constitución Española.
8 de diciembre, Inmaculada Concepción.
25 de diciembre, Natividad del Señor.

*Artículo 2.–* 1.– Serán también inhábiles para el trabajo, retribuidos y no recuperables en el año dos mil tres, hasta dos días con carácter de fiestas locales, que se establecerán por los Delegados Territoriales del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, a propuesta del Pleno de los Ayuntamientos respectivos, pudiendo ser comunes o no en los diversos términos municipales de cada Territorio Histórico.

2.– Los Ayuntamientos deberán formular sus propuestas y remitirlas a la respectiva Delegación Territorial que por ubicación les corresponda en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente a la fecha de la publicación del presente Decreto.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Se faculta al Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social para dictar las disposiciones necesarias para la aplicación y ejecución de lo dispuesto en este Decreto.

*Segunda.–* El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 25 de junio de 2002.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZCÁRRAGA RODERO.

## NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

### Zk-3926

158/2002 DEKRETUA, 2002ko ekainaren 25ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko landa garapeneko elkarteen berariazko araudiari buruzkoa.

Landa Garapeneko apirilaren 8ko 10/1998 Legeari dagokionez, hau da landa ingurumenaren garapena: Euskal Autonomia Erkidegoan landa inguruko erkide-

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

### N°-3926

DECRETO 158/2002, de 25 de junio, sobre el régimen específico de las Asociaciones de Desarrollo Rural.

La Ley 10/1998, de 8 de abril, de Desarrollo Rural, define el desarrollo rural como el proceso dirigido a mantener y consolidar las comunidades rurales, que fo-

goak mantendu eta indartzera zuzentzen den prozesua, bertako kultura eta bizimodu propioen artapena bultzatzen duena, biztanleen bizi kalitatea hobetzera jotzen duena. Landa inguruko biztanleek, prozesu horren onuradun nagusiak diren aldetik, biziki parte hartuko dute, inplikaturiko gainerako agente publiko zein pribatuekin batera, gauzatu nahi duten garapen motaren definizio eta lorpenean. Prozesu horrek, halaber, garapen endogenoa bultzatu behar du, baita landa inguruko bizilagunen eta gainerakoan arteko integrazio eta elkarreraginerako lagungarri izan ere.

Ildo horretatik jarraituz, Landa Garapeneko Legeak, 13. artikuluan, landa garapenerako bitartekotza-tresnetako bat ezartzen du: landa ingurunearen garapenerako elkarteak. Izan ere, Jaurlaritzari eskatzen dio zuzenbide pribatuko entitateak izango diren elkarte horiek aintzatesteko eskakizunak ezartzeko.

Lege berean ezarritakoaren arabera, ofizialki aintzatesten diren landa ingurunearen garapenerako elkarteekiko hitzarmenen baten bidez zehaztu ahal izango da elkarteok zer nolako parte-hartzea izango duten eta zer nolako lana egingo duten landa ingurunearen garapenerako programen barruko jarduketetan.

Legeak, 5. artikuluan, landa ingurunearen garapenerako programen lurralde eta eginkizun eremuak zehazteko irizpide orokorrak eta jarraibideak ezarri ditu.

Nolanahi ere, lehenengo fasean, Landa Garapeneko Legeak, I. Eranskinean, landa ingurunearen garapenerako zenbait programa ezarriko diren lurralde-eremuak zehazten ditu: Arabako Lurralde Historikoan: Arabako Haranak, Arabako Mendialdea, Arabako Errioxa, Gorbeialdea, Aiara, Arabako Lautada; Bizkaiko Lurralde Historikoan: Arratia-Nerbioiko Eskuladea eta Enkarterriak; eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan: Tolosa-Urola Kostaldea. Eskualde bakoitza osatzen duten udalerriak ere jasota daude.

Kontuan hartuta oso garrantzitsua dela landa garapenarekin zerikusia duten agenteek landa ingurunearen garapenean parte hartzea, apirilaren 8ko 10/1998 Legeak berak, agente horien barruan sartzen ditu landa ingurunearen garapenerako elkarteak, eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio elkarteok aintzat hartzeko baldintzak ezartzeko, eta, landa garapenean parte hartzeko modua arautzeko, landa ingurunearen garapeneko programen barruan.

Azkenik, gogoratu behar da otsailaren 12ko 3/1988 Legeak honela dioela 26. artikuluan: «Autonomia Erkidegoko herri-agintaritzek Euskadirentzat lehen-mailako interesgarritasuna izan dezaten alorretan bazkunak sustatu, eta horiek eratzeko eta horiek jardun dezateneko erraztasunak emango dituzte. Bazkunei edozelako lagun-

mente la conservación de la cultura y formas de vida que le son propias y mejore la calidad de vida de sus habitantes, entendiendo que éstos, como principales beneficiarios del mismo, participarán de forma activa, junto con los demás agentes públicos o privados implicados, en la definición y consecución del tipo de desarrollo del que desean formar parte, que favorezca tanto el desarrollo endógeno como la integración e interacción entre la población rural y el resto de la sociedad.

En esta línea, la misma Ley de Desarrollo Rural, en su artículo 13, establece uno de los instrumentos de mediación para el desarrollo rural, las Asociaciones de Desarrollo Rural, instando al Gobierno a establecer los requisitos necesarios para el reconocimiento de entidades de derecho privado, con forma de Asociación, como Asociaciones de Desarrollo Rural.

En la misma Ley se dispone que, mediante Convenio con la Administración, las Asociaciones de Desarrollo Rural oficialmente reconocidas podrán establecer su participación y colaboración en las actuaciones de los Programas de Desarrollo Rural.

La Ley, en su artículo 5, establece los criterios generales y parámetros para la determinación de los ámbitos territoriales y funcionales de los Programas de Desarrollo Rural.

No obstante, en una primera fase, la Ley de Desarrollo Rural, determina en su Anexo I, las Zonas o ámbitos territoriales a los que se circunscribirán y en los que se aplicarán determinados Programas de Desarrollo Rural: En el Territorio Histórico de Alava: Comarca Valles Alaveses, Comarca Montaña Alavesa, Comarca Rioja Alavesa, Comarca Estribaciones Gorbea, Comarca Ayala, Comarca Llanada Alavesa; en el Territorio Histórico de Bizkaia: Comarca Arratia-Nervión y Comarca Encartaciones; y en el Territorio Histórico de Gipuzkoa: Comarca de Tolosa-Urola Costa, incluyendo en cada una de ellas, los municipios que la integran.

Teniendo en cuenta la importancia que para el desarrollo rural tiene la participación de los agentes implicados, la propia Ley 10/1998, de 8 de abril, señala a las Asociaciones de Desarrollo Rural como uno de dichos agentes, encomendando al Gobierno Vasco que establezca los requisitos para su reconocimiento y regule su forma de participación en el desarrollo rural, en los Programas de Desarrollo Rural.

Finalmente, es necesario recordar que la Ley 3/1988, de 12 de febrero, de Asociaciones, promueve, en su artículo 26, el fomento de Asociaciones en sectores que sean prioritarios para Euskadi, así como la posibilidad de condicionarlo a la inscripción en registros o censos creados específicamente a tal fin, cuyo acceso a los mis-

tzak ematea horretarako berariaz sortarazitako errolde edo zerrendetan sartu daitezeneko baldintzapean jarri ahal izango da. Zerrenda edo errolde horietara iristeko, beti, aurrez Bazkun-Erroldan sartzea beharrezkoa izango da.»

Horren indarrez, Landaberrik aldeko txostena egin eta gero, Eusko Jaurlaritzako Aholkularitza Batzordearen aldeko irizpenarekin bat etorriz, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak proposatuta, eta Gobernu-Kontseiluak eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau,

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Xedea.

Dekretu honek helburu dauka Landa Garapeneko Elkarteak aitortzeko baldintzak ezartzea, bai eta, elkarteok zer nolako parte-hartzea izango duten eta zer nolako lana egingo duten Landa Ingurunearen Garapeneko Programen barruko jarduketetan, Landa Garapeneko apirilaren 8ko 10/1998 Legean ezarritakoen ondorioetarako eta bertan zehaztutako esparruan.

*2. artikulua.–* Landa garapeneko elkarteek bete beharrekoak.

Landa Garapeneko Elkartetzat aitortzeko, otsailaren 12ko 3/1988 Legean zehaztutakoari kalterik egin gabe, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistroan izena emanda egotea.

b) Irabazi asmorik gabekoa izatea.

c) Landa Garapeneko Legearen I. Eranskinean, edo lege horren 5.1. artikuluan zehaztutakoaren arabera adierazitako landa-eremuren bat jarduera-esparru izatea.

d) Landa Garapeneko apirilaren 8ko 10/1998 Legean jasotako helburuak (orokorrak edo/eta sektorialak) xede izatea.

f) Landa Ingurunearen Garapeneko Programa baten eraginpeko landa-eremuaren sektore ekonomiko eta sozialen ordezkagarri izatea.

g) Kideek, euren landa ingurunearen garapeneko elkartearen jarduera-esparruan instalazioak eta establezimenduak izatea, edo, instalaziorik ez badute, landa ingurunearen garapeneko elkarte horren jarduera-esparruan jardutea.

h) 5 kide izatea, gutxienez.

*3. artikulua.–* Aitortzeko prozedura.

1.– Landa Garapeneko Elkartetzat aitortzeko eskabidea Landa Garapeneko Zuzendaritzari bidaliko zaio, eta Eusko Jaurlaritzako Erregistro Orokorrean aurkeztuko da, edo Herri Administrazio Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 38.4. artikuluan aurreikusitako bideen bitartez.

mos requerirá, en todo, caso la previa inscripción en el Registro de Asociaciones.

En su virtud, previo informe favorable de Landaberri, oída la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco, a propuesta del Consejero de Agricultura y Pesca, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno, en su sesión celebrada el día 25 de junio de 2002

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Objeto.

El presente Decreto tiene por objeto el establecimiento de los requisitos para el reconocimiento de Asociaciones de Desarrollo Rural, así como su forma de participación y colaboración en las actuaciones comprendidas en los Programas de Desarrollo Rural, en el ámbito y a efectos de lo establecido en la Ley 10/1998, de 8 de abril, de Desarrollo Rural.

*Artículo 2.–* Requisitos de las Asociaciones de Desarrollo Rural.

Para ser reconocida como Asociación de Desarrollo Rural, sin perjuicio de lo dispuesto en la Ley 3/1988, de 12 de febrero, de Asociaciones, se deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Que se hallen inscritas en el Registro de Asociaciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

b) Que su finalidad sea no lucrativa.

c) Tener un ámbito territorial de actuación que incluya alguna/s de las zonas rurales señaladas en el Anexo I de la Ley de Desarrollo Rural, o que se señalen conforme los dispone el artículo 5.1 de la citada Ley.

d) Tener entre sus fines la consecución de objetivos, generales y/o sectoriales, de los recogidos en la Ley 10/1998, de 8 de abril, de Desarrollo Rural.

e) Ser representativas de los diferentes sectores económicos y sociales de la zona comprendida en un Programa de Desarrollo Rural.

f) Que sus miembros dispongan de instalaciones y establecimientos en el ámbito de actuación de la Asociación de Desarrollo Rural de la que son miembros, o que sin tener instalaciones operen en el ámbito de actuación de la Asociación de Desarrollo Rural de la que son miembros.

g) Que el número mínimo de socios sea 5.

*Artículo 3.–* Procedimiento de reconocimiento.

1.– La solicitud para ser reconocida como Asociación de Desarrollo Rural se dirigirá a la Dirección de Desarrollo Rural, y se presentará en el Registro General del Gobierno Vasco, o bien en las formas previstas en el artículo 38.4 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2.– Eskabidea honako agiri hauekin batera aurkeztuko da:

a) Elkartearen estatutuen kopia.

b) Elkarteen Erroldan izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiriaren kopia.

c) Elkarteko kideen zerrenda.

d) Zuzendaritza-Batzordearen izendapen-aktaren, kideen eta hori guztia Elkarteen Erroldan izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiriaren kopia.

e) Elkartearen eta elkartekide bakoitzaren jarduera-esparrua, jarduera eta helburuak jasotzen dituen txosten laburra.

f) Identifikazio Fiskaleko Kodearen kopia.

3.– Landa Garapeneko Elkartetzat aitortzea, apirilaren 8ko 10/1998 Legean ezarritako ondorioetarako, eta, otsailaren 12ko 3/1988 Legean zehaztutakoari kalterik egin gabe, Nekazaritza eta Arrantza Sailari dagokio, Landa Garapeneko zuzendariaren ebazpen bidez, dekretu honen 2. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badira.

4.– Landa Garapeneko Elkartetzat aitortzea edo ukatzea, apirilaren 8ko 10/1998 Legean eta dekretu honetan ezarritako ondorioetarako, eskabidea aurkeztu eta sei hilabeteko gehienezko epean ebatziko eta jakinaraziko da. Epe hori ebazpen adierazirik gabe igaroz gero, eskabidea onartutzat jo daiteke, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 43.2. artikuluaren ondorioetarako.

*4. artikulua.–* Landa Garapeneko Elkarteen Erroldа.

1.– Landa Garapeneko Elkarteen Errolda eratu da Landa Garapeneko Zuzendaritzaren barruan, Bazkunei buruzko otsailaren 12ko 3/1988 Legea erabat ezartzeari kalterik egin gabe.

2.– Erroldaren arduraduna Landa Garapeneko zuzendaria izango da bere zuzendaritzako langileen laguntzaz.

3.– Errolda, publikoa izango da, eta, dekretu honetan zehaztutakoa erabiliz aintzat hartutako landa ingurunearen garapeneko elkarteen inskripzioa jasoko du.

4.– 10/1998 Legearen ondorioetarako, landa garapeneko elkartetzat ofizialki aitortutako elkarteak erroldan izen-ematea erroldaren arduradunak egingo du ofizioz.

5.– Erroldak izen-emate liburu bat izango du, Landa Garapeneko zuzendariaren ebazpen bidez landa garapeneko elkartetzat aitortutako eta dekretu honetan zehaztutako baldintzak betetzen dituzten elkarteak jasoko dituena.

2.– La solicitud deberá ir acompañada de la siguiente documentación:

a) Copia de los Estatutos de la Asociación.

b) Copia del Certificado de Inscripción en el Registro de Asociaciones.

c) Relación de miembros de la Asociación.

d) Copia del Certificado del Acta de nombramiento de la Junta Directiva, de sus miembros y de la inscripción de todo ello en el Registro de Asociaciones.

e) Breve memoria que contenga el ámbito de actuación, la actividad y los fines, tanto de la Asociación como de cada uno de sus miembros.

f) Copia del Código de Identificación Fiscal.

3.– El reconocimiento como Asociación de Desarrollo Rural, a los efectos establecidos en la Ley 10/1998, de 8 de abril, y en el presente Decreto, y sin perjuicio de lo dispuesto en la Ley 3/1988, de 12 de febrero, de Asociaciones, se efectuará por el Departamento de Agricultura y Pesca, mediante Resolución del Director de Desarrollo Rural, siempre que se cumplan los requisitos establecidos en el artículo 2 del presente Decreto.

4.– La Resolución de reconocimiento o denegación de la condición de Asociación de Desarrollo Rural, a los efectos establecidos en la Ley 10/1998, de 8 de abril, y del presente Decreto, se dictará y notificará en el plazo máximo de seis meses desde el día de la presentación de la solicitud, transcurrido el cual sin resolución expresa, se entenderá ésta reconocida a los efectos previstos en el artículo 43.2 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Artículo 4.–* Censo de Asociaciones de Desarrollo Rural.

1.– Se crea el Censo de Asociaciones de Desarrollo Rural dependiente de la Dirección de Desarrollo Rural, sin perjuicio de la plena aplicación de la Ley 3/1988, de 12 de febrero, de Asociaciones.

2.– El Director de Desarrollo Rural será el encargado del Censo, que será atendido por personal de su Dirección.

3.– El Censo, que será público, tendrá como función la inscripción de las Asociaciones de Desarrollo Rural que hayan sido reconocidas como tales en aplicación de lo dispuesto en el presente Decreto.

4.– La inscripción en el Censo se efectuará de oficio por el encargado de éste, respecto de aquellas Asociaciones que estén oficialmente reconocidas como Asociación de Desarrollo Rural a los efectos de la Ley 10/1998.

5.– El Censo constará de un libro de inscripción en el que se anotarán las Asociaciones de Desarrollo Rural que cumplan los requisitos establecidos en el presente Decreto y que hayan sido reconocidas como tales mediante Resolución del Director de Desarrollo Rural.

6.– Izen-emate liburuak honako hauek jasoko ditu: izen-emate eguna, elkartearen izena, helburua, jarduera-esparrua, kide-kopurua, organo artezkarien osaera, bai eta hasieran emandako datuetan egon litezkeen aldaketak eta ezerezteak, bai eta ezerezte-eguna ere.

Erroldaren arduradunari dagokio elkarteari izen-emate horren berri ematea.

7.– Izena emandako landa garapeneko elkarteek eguneratuta izan beharko dituzte erroldan dauden datuak. Era berean, elkartean edo elkartearen organo artezkari eta kideen aldetik egon litezkeen aldaketen berri eman beharko diote Erroldaren arduradunari.

*5. artikulua.*– Landa Garapeneko Elkartea izateari uztea.

Aintzat hartutako landa garapeneko elkarteak, dekretu honen 2. artikuluan araututako baldintzak betetzeari uzten badio, izaera hori galduko du Landa Garapeneko zuzendariaren ebazpen bidez. Horrek landa garapeneko elkartetzat emandako aitorpena ezeztatuko du, eta, aldi berean, landa garapeneko elkarteen erroldatik kanpo utziko du erroldaren arduradunak ofizioz.

*6. artikulua.*– Lankidetza-hitzarmenak.

1.– Apirilaren 8ko 10/1998 Legean eta dekretu honetan zehaztutako erabiliz aintzat hartutako landa garapeneko elkarteek landa ingurunearen garapeneko programen barruko jarduketetan parte hartzeko eta laguntza emateko bidea edo modua lankidetza-hitzarmena izango da.

2.– Lankidetza-hitzarmenak eratuko dira landa ingurunearen garapeneko programa bakoitzeko, aintzat hartutako landa garapeneko elkarte batekin. Elkarte horrek, hitzarmenak helburu daukan landa ingurunearen garapeneko programa jakin hori aplikatzen den esparrua izan beharko du jarduera-esparrutzat.

3.– Lankidetza-hitzarmenak zein elkarterekin egingo den erabakitzerakoan, foru aldundiei eskatuko zaie aholkua, eta, Landa Garapeneko zuzendariaren ebazpen bidez izendatuko da hautatutako elkartea eskabidea egin duten elkarteen artetik, hautaketa-irizpide hauek erabiliz:

a) Esperientzia, landa ingurunearen garapenean.– 20 puntu

* Jarduketa-memoria.
* Lan-metodologia.

b) Kudeaketa-prozedurak.– 20 puntu

c) Elkartearen osaera.– 20 puntu

* Ekipo teknikoa eta baliabide materialak.
* Ordezkagarritasuna, lurraldeari dagokionez.

6.– El libro de inscripción contendrá la anotación de los siguientes datos: fecha de inscripción, denominación de la Asociación, objeto social, ámbito de actuación, número de miembros, composición de los órganos rectores, así como las modificaciones de los datos registrados inicialmente y las posibles cancelaciones, así como la fecha de cancelación.

Esta inscripción será comunicada a la Asociación por el encargado del Censo.

7.– Las Asociaciones de Desarrollo Rural inscritas deberán mantener actualizados los datos que constan en el Censo, y comunicar al encargado del mismo las modificaciones estatutarias que se produzcan en la Asociación, así como las modificaciones o cambios que se produzcan en sus órganos rectores y en sus miembros.

*Artículo 5.*– Pérdida de la condición de Asociación de Desarrollo Rural.

En el supuesto que la Asociación de Desarrollo Rural reconocida deje de cumplir los requisitos regulados en el artículo 2 del presente Decreto, perderá tal condición mediante Resolución del Director de Desarrollo Rural de revocación del reconocimiento como Asociación de Desarrollo Rural, debiendo producirse, así mismo, la baja del Censo de Asociaciones de Desarrollo Rural, que se efectuará de oficio por el encargado del mismo.

*Artículo 6.*– Convenios de Colaboración.

1.– El cauce o forma de participación y colaboración en las actuaciones comprendidas en los Programas de Desarrollo Rural, de las Asociaciones de Desarrollo Rural reconocidas como tal en aplicación de lo dispuesto en la Ley 10/1998, de 8 de abril y en el presente Decreto será mediante Convenio de Colaboración.

2.– Se formalizarán Convenios de Colaboración por cada Programa de Desarrollo Rural, con una Asociación de Desarrollo Rural reconocida, cuyo ámbito de actuación incluya la zona en la que se aplique el Programa de Desarrollo Rural concreto para cuya ejecución se firme el Convenio.

3.– La designación de las Asociaciones de Desarrollo Rural reconocidas con las que se formalizarán los diversos Convenios de Colaboración se realizará, previa consulta con las Diputaciones Forales, mediante Resolución del Director de Desarrollo Rural, de entre las Asociaciones que lo soliciten, en aplicación de los criterios de selección siguientes:

a) Experiencia en Desarrollo Rural.– 20 Puntos

* Memoria de Actuaciones.
* Metodología de trabajo.

b) Procedimientos de gestión.– 20 Puntos

c) Composición de la ADR.– 20 Puntos

* Equipo técnico y medios materiales
* Representatividad respecto al territorio.

* Ordezkagarritasuna, landa ingurunearen garapeneko programen ezarpen-esparruan nagusi diren sektore ekonomikoei dagokienez.
* Ekipo teknikoa. Garatu beharreko lanei egokitzea.
* Elkartearen eskura jarritako baliabide materialak.
* Kide-kopurua.

d) Sektore ekonomikoen inplikazio-maila.– 10 puntu.

e) Finantza-plana – 15 puntu.

* Baliabideen mobilizazioa.
* Oreka finantzarioa, garatu beharreko jarduketei dagokienez.
* Fondoen banaketaren eta programan proposatutako ekintzen arteko koherentziaren egiaztapena.

*7. artikulua.–* Lankidetza-hitzarmena eratzeko prozedura.

1.– Landa garapeneko programa bakoitzeko, eta Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren agindu bidez, dekretu honen 6. artikuluan aipatzen diren lankidetza-hitzarmenak eratzeko eskabideak aurkezteko epea irekiko da.

2.– Dagokion lankidetza-hitzarmena gauzatzeko aukeratutako elkartea Landa Garapeneko zuzendariaren ebazpen bidez izendatuko da. Ebazpen hori, aurreko atalean aipatutako agindua argitaratu eta sei hilabeteko gehienezko epean emango eta jakinaraziko da. Epe hori ebazpen adierazirik gabe igaroz gero, eskabidea ukatutzat jo daiteke, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 44. artikuluaren ondorioetarako.

3.– Landa Garapeneko zuzendariaren ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

*8. artikulua.–* Lankidetza-hitzarmenaren edukia.

Lankidetza-hitzarmenak honako hauek jaso behar ditu:

a) Iraupena.

b) Landa garapeneko elkarteek jasotzen edo kudeatzen dituzten fondoen zenbatekoa.

c) Jarduera-esparrua.

d) Landa garapeneko elkarteak egin beharreko ekintzak, ondo zehaztuta.

e) Hitzarmenkideek bete beharrekoak.

f) Organo kudeatzaileak.

* Representatividad respecto a los sectores económicos predominantes en el ámbito de aplicación del P.D.R.
* Equipo técnico. Adecuación a los trabajos a desarrollar.
* Medios materiales puestos a disposición de la ADR.
* N.º de Socios.

d) Grado de implicación de los sectores económicos.– 10 Puntos.

e) Plan financiero.– 15 Puntos.

* Movilización de recursos.
* Equilibrio financiero en relación con las actuaciones a desarrollar.
* Verificación de la coherencia entre la distribución de fondos y las acciones propuestas en el programa.

*Artículo 7.–* Procedimiento para la formalización del Convenio de Colaboración.

1.– Por cada Programa de Desarrollo Rural aprobado, y mediante Orden del Consejero de Agricultura y Pesca, se abrirá el plazo de presentación de solicitudes para la formalización de los diversos Convenios de Colaboración a que se refiere el artículo 6 del presente Decreto.

2.– La Resolución del Director de Desarrollo Rural, por medio de la cual se designará a la Asociación de Desarrollo Rural con la que se formalizará el correspondiente Convenio de Colaboración, se dictará y notificará en el plazo máximo de seis meses desde la fecha de publicación de la Orden citada en el apartado precedente, transcurrido el cual sin resolución expresa, se entenderá ésta denegada a los efectos previstos en el artículo 44 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

3.– La citada Resolución del Director de Desarrollo Rural se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco.

*Artículo 8.–* Contenido del Convenio de Colaboración.

El Convenio de Colaboración deberá contener los siguientes extremos:

a) Tiempo de duración.

b) Cuantía de los fondos que perciban o gestionen las Asociaciones de Desarrollo Rural.

c) Ambito de actuación.

d) Especificación de las actividades a realizar por la Asociación de Desarrollo Rural.

e) Obligaciones de las partes.

f) Organos gestores.

g) Landa garapeneko elkarteek, jasoko edo kudeatuko dituzten fondo publikoak egoki erabiltzen dituzten ikuska daitezen prest daudela hitza eman beharko dute.

h) Hitzarmena jarraitzeko batzorde bat eratzea.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Nekazaritza eta Arrantza sailburuari ahalmena ematen zaio dekretu hau garatzeko eta betearazteko xedapen osagarriak eman ditzan.

*Bigarrena.–* Dekretu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2002ko ekainaren 25ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Nekazaritza eta Arrantza sailburua,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

g) Compromiso de la Asociaciones de Desarrollo Rural de someterse a la fiscalización de la correcta utilización de los fondos públicos que perciban o gestionen.

h) Establecimiento de una Comisión de seguimiento del Convenio.

DISPOSICIÓNES FINALES

*Primera.–* Se faculta al Consejero de Agricultura y Pesca para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y la ejecución de este Decreto.

*Segunda.–* El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 25 de junio de 2002.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Agricultura y Pesca,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

## EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

## Zk-3927

EBAZPENA, 2002ko ekainaren 11koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Akademi Antolakuntzako errektoreordearena, Unibertsitatean eskaintzen diren Titulazioetako Oinarrizko Gaiak eguneratzeko Ikastaroa ezartzeari buruzko Araudia argitzaratzeko dena. Araudi hori Gobernu Batzarrak 2002ko maiatzaren 23an onartu zuen.

Akademi Antolakuntzako errektoreordeak proposamena egin zuen unibertsitatean eskaintzen diren titulazioetako oinarrizko gaiak eguneratzeko ikastaroa ezartzeko, eta, 2002ko maiatzaren 10ean, Akademi Antolakuntzako Batzordeak aldeko iritzia eman zuen.

Ondoren, 2002ko maiatzaren 23an, Gobernu Batzarrak Unibertsitatean Eskaintzen diren Titulazioetako Oinarrizko Gaiak Eguneratzeko Ikastaroak Ezartzeari buruzko Araudia onartu zuen.

Hori guztia kontuan hartuta, eta ekainaren 29ko 19/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatea Antolatzekoak, 4.7. artikuluan zehaztutakoaren babesean, honako hau

## UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO

## N°-3927

RESOLUCIÓN de 11 de junio de 2002, del Vicerrector de Ordenación Académica de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, por la que se procede a la publicación de la Normativa sobre la Implantación de un Curso de Actualización en Materias Básicas de las Titulaciones que se ofertan en la Universidad, aprobada por la Junta de Gobierno mediante Acuerdo de 23 de mayo de 2002.

Con fecha 10 de mayo de 2002 la Comisión de Ordenación Académica informó favorablemente la propuesta del Vicerrector de Ordenación Académica sobre la implantación de un curso de actualización en materias básicas de las titulaciones que se ofertan en la Universidad.

Posteriormente fue aprobada por la Junta de Gobierno, en sesión celebrada el 23 de mayo de 2002, la Normativa sobre la Implantación de un Curso de Actualización en Materias Básicas de las Titulaciones que se ofertan en la Universidad.

Por todo lo anterior, y en cumplimiento del artículo 4.7 de la Ley 19/1998 de 29 de junio, de Ordenación Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco (BOPV 16.07.98)